

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### OKONDOKO UDALA

#### **Jendaurrean jartzea uraren, zaborren eta estolderiaren 2016ko bigarren hiruhilekoko erroldak**

Okondoko udalerriko ur hornikuntza, estolderia eta zabor bilketa zerbitzuen tasen 2016ko bigarren hiruhilekoko erroldak egin dira, zeinak alkatearen 2016ko uztailaren 7ko dekretu bidez onartu baitira.

Erroldak jendaurrean daude hamabost egunez, iragarkia ALHAOn argitaratzen denetik aurrera, eragindako zergadunek aukera izan dezaten aztertze eta, hala badagokio, egoki jotzen dituzten erreklamazioak aurkezteko. Interesdunek espedientearen udal bulegoetan (Zudubiarte kalea, 2) aztertu ahal izango dute, 10:00etatik 13:00etara, astelehenetik ostiralera.

Erroldak eta haiei erantsitako likidazioak onartzen dituen egintzaren aurka, berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio alkateari, hilabeteko epean, haiek jendaurrean jarri eta hurrengo egunetik aurrera.

Borondatezko aldiaren ordaintzeko epea hilabetekoa izango da, 2016ko azaroaren 18tik abenduaren 18ra arte.

Borondatezko aldiaren ordaintzeko epea amaiturik, berez eta besterik gabe hasiko da betearazteko aldia ordaindu ez diren kuotetarako, eta dagozkien berandutze interesak eta errekarguak eskatuko dira, 6/2005 Foru Arauak, zergen orokorrak, 26. eta 28. artikuluetan ezarritakoaren arabera, eta, hala badagokio, baita premiamendu bidearen kostuak ere.

Bankuetan helbideratutako ordainketetarako, zergadunek ez dute inolako izapiderik egin behar, eta bankuak 2016ko abenduaren 5ean egingo du zordunketa.

Helbideratu gabeko ordainketetarako, zergadunei udalaren bulegoetan entregatuko zaie ordainagiria (astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara), dirua Okondoko Kutxabanken sar dezaten.

Okondo, 2016ko azaroaren 7a

*Alkatea*

*SERGIOTATO EGUREN*